



ROSALINDA ETA TXOMIN, XIRINGA ETA XIRINGO

Jatorrizko idea eta textuak

Ana M^a García de Motiloa Gámiz

Irudiak

Raquel Gonzalo García de Motiloa

Diseinu eta kolorea

Maialen Gonzalo García de Motiloa



Kaixo berriro ere!

Ospitale jauna naiz. Zuetako askok ezagutzen nauzue; beste askok, berriz, ez, baina, beharbada, ezagutuko nauzue noizbait.


Hala balitz, primeran tratatuko zintuzketet.

Nire barruan bizi diren pertsonaia berezi batzuei gertatzen zaizkien istorio batzuk kontatu behar dizkizuet. Pertsonaia

horietako batzuk oso dibertigarriak dira; beste batzuk, gainera, jakintsuak; eta artistak ere badaude.

Entzun arretaz, oihala ireki eta hemen badugu xiringa- eta xiringo-familia. Besterik gabe, hemen dituzue:

"ROSALINDA ETA TXOMIN, XIRINGA ETA XIRINGO"



Oso familia berezia da, eta hauek osatzen dute:


Aita (xiringoa) Txomin da; ama (xiringa), Rosalinda; badute Margarita izeneko xiringakume bat, eta Pakito izeneko semetxo bat.

Kapela, txalekoa, eskularruak, makila eta txarolezko oinetakoak erabiltzea gustuko du Txominek.

Rosalindari, berriz, parpailadun gonak, lihozko alkandorak eta takoi meheko oinetakoak gustatzen zaizkio.

Margarita oso txikia da bere arropa hautatzeko; horregatik, eguna hastean, amak esandakoa janzten du.


Pakito zaharxeagoa da, eta armairuak irekitzea eta medikuz janztea gustatzen zaio.




Nire barruan bizi dira guztiak (ospitalean, alegia), eta beste tresna mediko batzuk dituzte auzotzat: depresoreak, maskarak eta binilozko eskularruak. Puzten dituztenean, gandorrak tente dauzkaten punkiak dirudite eskularruek.

Loturak, esparatrapuak, guraizeak eta kotoia ere gertu bizi dira.

Handik nahiko hurbil termometroak ere bizi dira. Oso lotsatiak dira, eta, sarri, gorri-gorri jartzen dira, piper erreak bezala.



Oso ondo banatuta dago Txomin xiringoaren familiako lana: berak eta Rosalindak jendea ziztatzen dute, orratz luze batekin; seme-alabek (Margarita xiringatxoak eta Pakito xiringotxoak) xarabe gozo-gozoak (laranja, marrubi, meloi, masusta... zaporekoak) jartzen dituzte neska-mutikoen ahoan. Horregatik, pixka bat bederen maite dituzte umeei Margarita eta Pakito.



Esan behar dizuet miope samarra dela ama xiringa (Rosalinda) eta betaurrekoak erabili ohi dituela; batzuetan, ukipen-lenteak ere erabili ohi ditu, ostadarraren koloreekin.


Aita xiringo (Txomin jauna), berriz, gor samarra da. Hobeto entzuteko aparatu bat erabiltzeko gomendatu diote medikuek, baina, despistatu samarra denez, ahaztu egiten zaio jartzea.

Medikuek eta erizainek eginkizunen bat agintzen badiote eta Txominek entzuten ez badie, hau esaten diote:

-Txomin, gorra al zaude? Txominek honela erantzuten die:

-Bai, kirol gutxi egin du azkenaldi honetan, eta nahiko gogorra nago.

Bai gizon ona eta despistatua!




Beste edozein bezalako lanegun batean, Rosalindaren familiak bere lanari ekin behar dio: ez dute inor ere utzi behar injekziorik gabe.

Medikuak honela dio xiringori:

-Txomin, bi mutiko bikiri (Raul eta Paul, pijama urdinekoak biak) jarri behar dizkiezu injekzioak.

Hobeto entzuteko aparatua jartzea ahaztu egin zaionez Txomin xiringoari, eta du MUTIKO hitza aditu.

Edan du, bada, bere likido magikoa (xiringa eta xiringo guztiek barruan eraman ohi dutena, gu sendatzeko), eta pijama urdindun mutilen bila abiatu da: Paul eta Raulen bila, alegia.




Lanera azkarrago iristearren, bizikleta hartu du Txomin xiringoak eta hor abiatu da,ren bila.

Askotan zulatu ohi zaio gurpilen bat Txomini, despistatua baita.

Une horretan, hara non ikusten dituen, bere sudurraren parean, bi pijama urdin, oinez (noski, pijamen barruan bazen jenderik).

-Kontxo -pentsatu zuen-, hemen dira pijama urdindunak.

Jaitsi da bizikletatik, eta mutikoen atzetik korrika abiatzera doa, orratzarekin ziztatzeko asmoz; halako batean, ordea, oihuz eta zalapartaz bete da ospitaleko korridorea.




-Baina, zer zabiltza, Txomin?, -galdetu diote neska jazarriek-.

-Medikuak agindu didana, azkar asko gainera, -erantzun die Txominek-.

Nahastu egin da xiringo gaixoa, eta orduantxe konturatu da jantzi urdina daramaten bi erizainen atzetik zebilela.

Txus eta Gurutze dira erizainak.


Korrika jarraitzen dute neskek, Txominen orratzak harrapa ez ditzan. Izan ere, Txominen orratza..., zorrotza eta zehatza!



Badirudi denek dutela egun txarra, Rosalinda xiringari ere ahaztu egin baitzaio betaurrekoak janzteia eta, oso miopea denez, umeak ziztatu beharrean haiekin doazen panpinak ziztatu ditu.

A zer zalaparta! Panpinak, negarrez; umeak, berriz, ez dira sendatzen...

-Ez dut ulertzen -dio ama xiringak-; zergatik ari dira negarrez ume horiek panpinak balira bezala? Hoztu egin ote ziren, eskalapoirik ez zeramatelako?



Hain dago kezkatuta Rosalinda, ezen, etxera itzultzeko patinetea hartu eta ospitaleko korridoreetatik abiatu ordez,

tantaz tantako baten zutoina hartu eta, danba!, Erramuna lanbasarekin egin du talka. Korridorea garbitzen ari zen

Erramuna, eta aieneka hasi da:

-Aiii! Begiratu non zabiltzan, ilea nahasi egin didazu eta!

-Barkatu, baina... -orduan ohartu da Rosalinda ez daramala ez betaurrekorik ez koloretako ukipen-lenterik, eta izututa

iratzarri da.


Erramuna lanbasak bezala amaitu du, ileak tximinoen antzera dituela.

Une horretantxe, izerditan Txomin ere esnatu da. Amesgaiztoa izan du, non korrika eta aulki baten inguruan bueltaka

ibili baita.

Margaritak eta Pakitok ere amesgaiztoak izan dituzte: Margaritak odolki-xarabeak ematen zizkien umeei; Pakito, berriz,

pastillak (mila pastilla) zenbatzen aritu da.



Amesgaizto xelebre horiek izan eta gero, ama xiringaren familiak ez du inoiz gehiago afalduko kesadillarik afalduko.


Opil goxo-goxoak dira kesadillak, eta mexikon jan zituzten lehenbizikoz, Rosalinda xiringa eta Txomin xiringoa eztei-bidaian, hara joan zirenean.

Garai hartakoa da oso maiteminduta, kapela eta guzti, ageri diren argazkia. Jan eta gero, txokolate-zaporeko edari batekin ("kilatea") egin omen zuten topa. Begira zer abestu zuten topa egitean:

"UMORERIK BALDIN BADA, OINAZEA BADOA! EDERRA DA JALISCO, EGIA BERDADEROA! (TXIS PON)



Eskerrak ametsa izan den guztia; izan ere, gainerako lekuetan bezala, ospitale batean ere,
BIKAIN EGIN BEHAR DA LAN.





AMAIERA

Esker bereziak Rafa Arriola San Sebastian-i bere laguntzagatik.

J.I.E.VI-148-2011

